



EBAZPENA, 2017ko ekainaren 22koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, 2017-2018 epealdiari dagokionez, Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko urriaren 31ko Aginduak (EHAA, 206. 2016ko urriaren 31), 2017-2018 urteen artean Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten du.

Deialdi horretan parte hartzeko eskabideak ikusi dira.

Ikerketa zuzendaritzako zuzendaria buru delarik, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak eta ikerketa-programen teknikari batez osatutako ebaluazio-batzordeak egindako esleipen-proposamena ikusi da, eta deialdiko 13. artikulua ezarritakoarekin bat etorrira,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ikerketa-proiektuak egiteko diru-laguntzak esleitzea, hain zuzen ere Ebazpen honen **Ebazpena 1. eranskinean** datozenak. Bertan agertzen da proiektuetan onuradun bakoitzari dagokion dirulaguntza.

Bigarrena.- Eskaturiko puntuazioa lortu ez izateagatik uko egiten zaie gainerako eskaerak **Ebazpen 2. eranskinean** jasotzen den moduan. Hautatze prozeduratik baztertuak izan diren eskaerarik ez da egon deialdi honetan.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Gasteiz, 2017ko ekainaren 22a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Ikerketa eta Unibertsitate Sailburuordea
Viceconsejero de Universidades e Investigación



HEZKUNTZA SAILA
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Dirección de Investigación